

**XVII. MENDEKO IDAZLEEN PRESTAKUNTZAREN
INGURUAN.
AXULARREN KASUA**

Azken urteotan, historialariek XVI. eta XVII. mendeetako oinarrizko heziketa sistema ezagutzeko ahalegin bereziak egin badituzte ere, Kagan-ek (1981, 31) onartzen duen bezala, badi-rudi "behin-betiko" lanak eginkizun izaten jarraitzen duela.

Gure artean, zer esanik ez, areagotu egiten da egoeraren larritasuna arrazoi desberdinak direla medio. Euskal Herriak historian zehar jasan izan duen zatikatze administratibo-politikoe-tatik hasita, egungo dokumentu-eskasiaraino, eta euskarak eta euskal kulturak izan duten debekuetatik iraganik, esan daiteke mirakulu moduko bat dela dakiguna jakitea eta daukaguna edukitzea.

Alabaina, egia da baita ere azken bolada honetan gure arlo geografiko-kulturalean aztertze lanak ugalduz joan direla eta hutsuneak betetzen-edo hasi direla; gero eta gehiago dira, esate baterako, Nafarroako hiri eta herri batzuetako alfabetatze eta eskolaratze arazoaz burutzen ari diren ikerketak.

Guztiarekin ere -eta prezeski literatur esparrua jorratu nahi dugunez gero-, aitortu behar da ez dela oraindik aurrerapen handirik somatzen garai hartako euskal idazle nagusien prestakuntzaren berri eman lezaketan hezkuntza egituren inguruan. Eta faktore honek, ezin da ahaztu, garrantzi handia izan ohi du

beti gero idazle gisara agertuko zaigun pertsonarengan. Izan ere, E. Asensiok gogorarazten duen bezala, “por muy escépticos que seamos sobre la influencia del aprendizaje escolar en el poeta o ficcionista, hemos de admitir que la formación retórica [...] repercute en las modalidades de la historia, la oratoria, la novela, el teatro y la lírica del Siglo de Oro” (1981, 47).

Axularren kasua, esaterako, enblematikoa da: idazle klasiko handiena izan arren, ezer gutxi dakigu haren bizitzaz eta prestakuntzaz (jaioturtea bera zalantzan dago oraindik) eta, era berean, haren jaioterri izan zen Urdazubi ingurukoez. Lorratz txikiak baino ez dira erabil eta, agian, emankor suerta daitezkeenak. Ildo horretatik, lehen letren irakaskuntzaren antolamendua udal eta parrokien esku zegoenez gero (ik. Laspalas Pérez 1989, 181), pentsatzekoa da hortik-edo abiatu ahal izango dela ikerkuntza lerroren bat.

Baina momentuz ezer gutxi baiezia daiteke Axularren haurtzaroko ikasketei buruz.

Haren heziketaz dakigun gauza ziur bakarra Salamancako ikasketetara mugatzen da, hots, Teologian ikasi eta lortutako batxilergoaren kontuetara. Hori eta, nahi bada, Axularren zinezko prestakuntzaren lekukotasuna, izan ere, urdazubiarrak jakitun handiaren irudia islatu baitzuen orduko gizartearen aurrean, herri tradizioan haren izaera eta ospari buruz gelditu diren ipuinek (Barandiaran, 1956a, 1956b, 1974; Satrustegui 1974) erakusten duten bezala¹.

¹ Bestelakoa izan zitekeen, dena den, prestakuntzaren arrazoiei buruz herriak izan zezakeen pertzepzioa. Ildo horretatik, adierazgarria da Burkek dioena: “Todo aquello que estaba fuera de la experiencia normal de la gente corriente, tenía una explicación extraordinaria. Ser, por ejemplo, una persona instruida era algo anormal y por ello esa persona debía tener, cuando estudiaba, una cabeza de bronce que respondía a todas sus preguntas” (Burke 1991, 250). Axularren kasuan, egoera ez-normal haren arrazoiak Salamancan deabruarekin ikasitakoan edota harekin egindako itunean aurkitzen da nagusi. Era berean, Axularri buruzko “Xapela mintzatzen” izeneko ipuinean brontzezko buruaren pareko bertsioa izango genuke.

Datu horien ondoren, Axular predikari gisa agertutakoaren lekukotasun historikoa Frantziako Henrike IV.arena berarena izango da²:

“Il nous a esté remonstré de la part de notre cher et bien aimé Pierre d’Achular pbre gradué en Théologie, natif du lieu d’Urdach de notre royaume de la Haulte Navarre, qu’il y a environ cinq ans qu’il est résidant en France au bourg de Saint Jehan de Luz au bailliage de Labourt, où durant led. temps *il a presché la parolle de Dieu au gré et contentement de l’evesque et gens de bien dud. pays*” (apud Urquijo 1911, 554; gurea da letrakera etzana).

Predikari lan horrek ezinbestean bideratu behar izan zuen geroagoko lana, idazteari ekitean burutuko zuena alegia, eta guztia tradizio konkretu batean txertatzen zelarik, gaztelerazko oratoria sakratuaren barnean garatu zen predikazio edo sermoigintzaren esparruan hain zuzen.

Dena den, agerian dago urria dela erabil daitekeen dokumentazioa.

Sarako predikari eta idazlearen soslaia osatu eta ulertu nahi bada, beraz, ez da beste erremediorik, antzeko testuingurueta-ko datu historikoetan oinarritutako hipotesietara jotzea baizik, eta horrekin guztiarekin -dedukzio hipotetikoaren bidez, hain zuzen- nolabaiteko amaraun esplikagarri bat ehuntzea. Eta horixe izango da ondoko lerroetan eskainiko dena.

² Azkueren eskutik ere iritsi zaigu Axular predikariaren berri ematen duen eskutitza. Lahetjusan apaizaren idazki honetan gure idazle predikariaren bizi-tzaren zenbait zertzeladaz aparte, sermoilari gisa izandako dedikazioaz ere mintzatzen zaigu, pasadizo umoretsurik falta ez delarik: “*Il prechoit le matin a S. Jean de Luz et le soir a Sare les fêtes et dimanches, a l’exemple de son predecesseur qui avoit été pareillement curé de S. Jean de Luz et de Sare. Comme il faisait après vêpres, a son ordinaire, une homilie sur le bon Pasteur, une femme lui cria du milieu de l’auditoire, jauna, arçain onac ardiac goyçetic albaçen tu.*

- *Hemendic barat nic ere nereac bala eguinen ditinat.*

Effectivement, il renonça a la curé de S. Jean en faveur du Cadet d’Urtubie son compétiteur” (Azkue 1925, 61).

Eta hipotesi nagusia -azal dezagun hasiera-hasieratik-Axularrek ikasketak Urdazubin zegoen Premontretarren Ordenak eskainitako azpiegituraz (ikastetxez zein monasterioz) baliatuz burutu zituela izango litzateke, ordenako beste ikaskide aukeratuek zegiten bezalatsu. Horren arabera, Teologia bukatu arte, Axularren prestakuntza premontretarren babesean garatuko zen bete-betean, izan ere, urdazubiarra premontretar bihurtzera bideratua zegoela baitirudi³. 1596tik aurrera (eta, zer esanik ez, 1600ean Sarako erretoretzara auzartzean) egin zuen hautaketa berriak zerikusit handia izan zezakeen Espainiako erresuman Ordena jasaten ari zen krisialdiarekin eta erreforma prozesu latzarekin⁴.

1.- OINARRIZKO IKASKETEZ

Ezaguna da XVI. mendean irakaskuntzaren prestigioarekin batera, letren demokratizaziorako dinamika herri bat zabaldu zela monarkia espainiarraren menpeko herri xehearen artean. Kaganek oroitarazten duen bezala,

“[...] el deseo municipal y popular existente en el XVI de contribuir a la educación secundaria produjo un brusco ascenso en el número de escuelas de latinidad, hazaña no repetida en España hasta el siglo XIX” (Kagan 1981, 86)

Izan ere, orduan handitzat jotzen ziren herri gehienetan (500 auzakide baino gehiagokoetan) sortu ziren horrelako eskolak,

³ Tamalez, hipotesi hutsa baino ezin izan honako hau, artikulua prestatzera koan ez baita Madrileko Archivo Histórico Nacional delakoa ikuskatzeko egokierarik izan. Jakina denez, bertan dago Espainiako premontretarrei buruz geratu den dokumentazioa.

⁴ Axular Salamancan Teologia ikasten ari zela, etengabekoak izan ziren Ordena deuseztatuko zutela zioten zurrumurruak. Horren adibide esanguratsua da, esaterako, 1594ko maiatzaren 7an La Vid-eko monasterioan probintzia espainoleko kapitulua hastear zegoenean zabaldu zena. Guztiarekin, eta desagertu ez bazen ere, 1600eko apirilaren 30eko kapituluan esparru espainoleko premontretarren erreforma (eta, ondorioz, Premontretar Ordena nagusiarekiko haustura) erabat burutua geratu zen (ik. Goñi Gaztambide 1960).

XVI. bukaeran eta XVII. mendearen hasieran lau mila inguru eskola eta hirurogeita hamar mila ikasle izatera iritsi zirelarik. Eta mediorik ez zegoenean, herriko apaizak berak hartzen bide zuen gramatika irakasteko egitekoa.

Lehen adierazi bezala, Axularren kasuan badirudi bidezkoa dela pentsatzea Urdazubiko Premontretarren monastegian egin zituela hasierako ikasketak. Ildo horretatik, ezin ahaz daiteke Axular ordenakume ikusten zuten premontretarrek zein garrantzizko zeritzoten hizkuntzen irakaskuntzari oinarrizko prestakuntzan, eta ez bakarrik inoiz unibertsitateara ikastera joateko aukera izan zezan⁵; hori baino garrantzitsuagoa zen hazkunde prozesu arrakastasuan murgildurik zegoen ordenaren 16 monasterio espainoletarako jendea prestatzea.

Beraz, bai gaztelera (ordenaren lan eremuan ezinbestekoa) eta bai latinaren hastapenak (elizaren hizkuntza), biak eskainiko zizkion Urdazubiko monastegian hasitako prestakuntzak. Oinarri-oinarrizkoa baino ez, nonbait.

Printzipioz, dena den, ezin har daiteke heziketa mota hau ez-ohiko gauza bat bezala, medio ekonomiko gehiegirik ez zuten gazte xehe askok jasotzen zuten zerbait bezala baizik. Gero, mintegi hartatik ikasle egokienak hauta zitezkeen eta behar bezala bideratu erlijio-esparrurantz.

⁵ Oro har, eta edozein teologogaik bezalatsu, Axularrek ere ongi frogatuak izan beharko zituen unibertsitatean sartzeko beharrezkoak ziren hizkuntza biak, ikasketa-hizkuntza zirenak alegia: "Los requisitos de entrada en la universidad [...], dos de ellos han perdurado excepcionalmente: el primero, aún vigente, es el dominio de la lengua vernácula; el segundo, [...] es el conocimiento del latín" (Kagan 1981, 45). Jakina, Axularren kasuan "vernácula"-k ez bide zituen gaztelera eta latina izango ziren kozkortu ahala ikasi eta landu beharko zituenak. Gogora bedi, halaber, goi mailako ikasketak egiteko asmoa zuten Gaztelako monarkiaren agindupeko biztanleek guztiz ezinbestekoa zeukatela gaztelera, 1558ko zentsura legeen bitartez debekatu egin baitzen penintsulatik kanpoko unibertsitateetara abiatzea, salbuespen bakarrak Coimbra, Napoles eta Boloniakoak izan zirelarik.

Kontutan hartu behar da garai hartako heziketa ikaslegai eta haren familiaren estatusaren arabera ohi zela, izan ere, baliabide ekonomikoez gain, etorkizuneko espektatibak ere guztiz bestelakoak izan baitzitezkeen (zaldunen ondorengoak...). Jende xumearen semeen artean, salbuespen izan zitezkeen “bokazio erlijiosoaren” espektatibak zituztenak eta modu batean edo bestean bide horri eusteko aukera zutenak: monasterio bateko itzalpean sartzen zirenak, familian apaiz edo erlijiosoren bat zutenak, etab.

Kontrarreformaren urte haietan, bestalde, haurren hasierako prestakuntza erlijiosa ohi zen erabat eta bat zetorren gizartearen eguneroko bizimoduan islatzen ziren sinesmen eta ohiturekin. Irakurtzen ere otoitz liburuen bidez irakasten zen, bertan agertzen ziren otoitzak buruz ikasi eta gero paperean agertzen ziren zeinuak “deszifratzen” hain zuzen⁶. Gogoratzekoa da Trentokoaren ondoren irakaskuntzak indar bizia hartu zuela protestantismoaren aurkako estrategia berrian eta, horren barne-inguruetan, jatorriz eta mintzabidez euskaldunak ziren pertsonaia askok protagonismo nabarmena erakutsi zutelarik hezkuntza eta alfabetatzearekin zerikusirik zuten esparruetan⁷. Ildo horretatik, eta anekdota gisara bada ere, az-

⁶ Horri dagokionez -eta Erreforma protestantearen esparrukoa zela ahaztu gabe-, ezaguna bezain eredugarria da euskal letretan Leizarragaren *ABC, edo Christinoen instructionea...* delakoaren egitura, hots, sarrera bat “Heuscal-Herrian gaztetassunaren iracasteco carguä dutenér” zuzendua eta orrialde zenbait ondo irakurtzen ikasteko tresneriarekin (abezedarioa, diptongoak, puntuazio-markak, silabariuma...). Frantsi dezagun, bidenabar, hitzaurre horri ohorezko toki (eta kronologikoki euskaraz idatzitako lekukoaren artean, lehena) dagokiola oraindik egiteke dagoen Euskal Hezkuntzaren Historian. Bertan eskaintzen dituen hiru “adbertimenduak” arras interesgarriak dira orduan erabiltzen zen irakurketa-sistemaz jabetzeko.

⁷ Azpimarratzekoa da, esaterako, Loiolako Iñaziok 1539an sortutako Jesusen Lagundiak hurrengo urteetan erdietsiko zuen sona, batik bat jesuitak toki emblematikoean ikastetxeak eta hezkuntza sistema sendoak eraikitzen eta kudeatzen hasi zirenean. Honek guztiak aldaketa nabarmenak ekarri zituen gero esparru katolikoetara, besteak beste, hezkuntzaren nolabaiteko “jeneralizazioa” ere ahalbidetu baitzuen.

pimarragarria da Espainia aldean gazteleraz idazten ikasteko ohiko ziren liburuen artean arrakasta ezin handiagoa jaso zutela bizkaitar biren obrek, hots, Juan de Yziar-en *Ortografía práctica* izenekoak (1548) eta Pedro de Madariagaren *Arte de escribir, ortografía de la pluma y honra de los profesores de este magisterio* (1565) liburuak⁸.

Oro har, ikasleak ez ziren kultur egiteko handiagotan hasten hamar bat urte izan arte, hau da, irakurtzen eta idazten jakin arte, erdaraz jakina, ez baitzegoen hori euskaraz egiteko ez biderik, ez libururik. Bestalde, ikaskuntzaldi honen iraupena lau-sei urtekoa ohi zen.

2.- ERRETORIKA KLASIKOAN BARNERATZEN

Geroago, lehenengo letrak ikasi ondoren, hiruzpalau urte igarotzen zituzten (15 urte bete arte gutxi gorabehera) Gramatika, Historia eta Erretorika ikasten. Latina oinarrizko hizkuntza zen hiru arlo horiek ikasteko eta, ondorioz, latinezko testu hautatuen bitartez ikasi ohi zen. Gramatikako azterketa helburu zutelarik hasten ziren Erretorika arloko lehen urrats sendoak, bai autore klasikoak sakonago irakurtzen zirelako, bai erretoriko garrantzitsuenak aztertzen zirelako. Jakina, latinean sakontzeaz gain, ikasketok lehenengo hurbilketa izaten ziren ikasleentzat erretorikaren eremuan eta, nola ez, idazle klasikoen obretara⁹ iristeko gonbitea, betiere parametro erretorikoak “hirutasun sailduaren” ildokoak ohi zirelarik¹⁰.

⁸ Autore biak aipatzen ditu Melchior Pradas delakoak Madariagaren ohoretan beronen liburuaren atarian argitaratutako sonetoan: “...Vizcaya d’Escrivanos triumpho бага / Pues tiene estos Varones por memoria / A Iciar, y al Autor Madariaga” (Cfr. Urquijo 1922, 248). Ohar bedi, bide batez, obra honetakoa dela garai hartan euskaraz idatzirik omen zeuden liburuen lehen erreferentzia historikoa: “Yo no puedo dexar de tomar un poco de colera con mis Vizcaynos porque no se sirven della en cartas y negocios; y dan ocasión a muchos de pensar que no se puede escreuir hauiendo libros impressos en esta lengua” (*idem*, 250).

⁹ Austriarren garaian oinarrizko irakaskuntzaz haratago jo nahi zuten ikasle-en prestakuntzaren ikasgai garrantzitsuenak latina eta haren gramatika bazi-

Garai haietan eskuliburu erabilienetako bat Juan Bonifacioren *Christiani pueri institutio adolescentiaeque perfluum...*(Salmanticae, Mathias Gastius, 1575) arrakastatsua izan zen.

Amaieran, ikasketekin jarraitu ahal izateko azterketa bat gainditu behar izaten zuten ikasleek. Adierazgarria da, esaterako, Salamancako Unibertsitatean arautua zegoena¹¹. Baina aurrera egin ahal izateko Gramatikako azterketa ezinbestekoa bazen ere, bazuen salbuespenik ere: "si fuere frayle" hain zuzen.

Ohi bezala, panorama honek Axularrek erretorikaren klasi-koekin izandako lehenengo kontaktu sistematikoez hitz egingo liguke. Zinez susmatzekoa da, beraz, Axularrek geroago erabiliko zituen hainbat erreferentzia klasiko eta erlijioso ez ote ziren garai haietan honelako liburuetan ikasitakoak¹².

Zein tokitan burutu zituen ikasketa hauek planteatzerakoan, badirudi hemen ere logikoena dela pentsatzea Axular Urdazubiko premontretarrek eskaintzen zioten ildotik abiatuko zela ikasketak burutzeko eta, ondorioz, beraiek zuten azpiegituraz baliatuko zela. Izan ere, norbertinoek (hots, premontretarrek) 1569ko otsailerako eraikia eta sortua zuten gramatika-ikastetxe bat ordenako erlijioso izateko asmoa erakutsi zutenentzat San Pelayo de Cerrato izeneko monasterio ren ere, ez da gutxiestekoa erretorika, filosofia eta historia ikasten jartzen zen arreta berezia.

¹⁰ XVI. mendean hizkuntz eta erretorika ataletarako Antonio Nebrijak idatzitako *Artis Rhetoricae Compendiosa Coaptatio ex Aristotele, ex Cicerone et Quintiliano* erabili ohi zen testu-liburu gisa, izenburuak zioen bezala aipatu "hirutasunaren" dotrina erretorikoan oinarritua. Irakurtzeko testuak ere autore klasikoenak izaten ziren: Zizeron, Zesar, T. Livio, etab.

¹¹ Diego de Covarrubias, *Estatutos hechos por la muy insigne Universidad de Salamanca*, Salamanca, Juan María de Terranova, 1561, in Mitxelena Mz. de Ilarduya 1977, 61-hk.

¹² Ahaztu gabe, jakina, Salamancan sakonago ezagutuko zituen *silva* eta *collectanea* gisakoetatik jasoak, hala nola Granadarenak eta beste hainbat autorerenak, eta modu berezian, Justo Lipsioren *Sylvae illustrium autorum...* (Olisippone, 1588) izeneko obra ospetsu, erabili eta maiz berrinprimatutakoa.

palentziarrean (Goñi Gaztambide 1960, 50). Ez bide dago arrazoirik Axularrek han ez zuela ikasi uste izateko, batez ere go-goan hartzen bada 1581etik aurrera nobiziatu bakarria ezarria zutela premontretarrek probintzia espainol guztirako eta horrek guztiak behartzen zituela batera aritzera.

Hipotesi gisa bada ere, gramatika ikasketak izan zitezkeenak zeharo gaindituta izango zituen Axularrek 1587an Iruñean ordena txikiak jaso zituenean¹³.

3.- ARTEETAN BATXILERGOA

Urdazubiarraren biografia sendo eta orokorra burutzen ez den bitartean, argigarri suerta daiteke Axularren prestakuntzaren hurrengo urratsak ere nolakoak izan ziren eraikitzea eta horretan egiaztagarri izan litezkeen zenbait aieru eskaintzea.

Jakin badakigu Axularrek Teologia batxilergoa Salamancan eskuratu zuena. Hortaz, hango "ikasketa planei" kasu eginez gero, zinez pentsa liteke Axularrek egokiro bete zituela hartarako eskatzen zitzaizkion baldintzak. Atzekoz aurrera eginez gero, lehenengo baldintza, hots, Teologian batxilergoa lortzekoa, Covarrubiasen estatutuen arabera Arteetan batxiler bihurtzea zen¹⁴. Oro har, Salamancan Arteetako batxilergoa erdies-terko aipatu estatutuetan honako ikasketa hauek burutu behar izaten zirela agintzen da:

¹³ Ez genuke urdazubiarraren adinari buruz oinarririk gabeko hipotesi gehiegirik egin nahi. Ezer egitekotan, ikasketetarako ohiko adina atzeratzen ausartuko ginateke Axularren kasuan, logikoa baita pentsatzea haren zirkunstantziak (hizkuntza, giroa, etab.) ez zirela aproposenak eskolarizazio normala eramateko eta hamabost-hamasei urterekin irakaskuntza mota hau bukatua izateko (Kagan 1981, 74-hk.). Honek 1565-1570 bitartean jarriko luke urdazubiarraren jaioturtea.

¹⁴ "Iten el que quisiere hazer se bachiller en Theologia, o en Medicina, ha de prouar auer hecho los cursos de aquella facultad despues de bachiller en artes, o tener cursos para ser lo, sin la qual prouança no sea admitido" (apud Mítxelena Mz. de Ilarduya 1977, 64)

“Iten, que ninguno pueda hazer se bachiller en artes, sin que primero aya hecho tres cursos enteros de Summulas, Logica magna, y Philosophia en tres años distintos, por manera que el año primero oya Summulas mas de seys meses, y en lo restante no pueda cursar en Logica, ni en otra facultad, y el segundo, que oya Logica, sin que pueda cursar en Philosophia, y en el tercero, en Philosophia, y en el restante del año, no pueda cursar en Theologia ni en Medicina, ni en otra facultad, sino en Philosophia moral en que han de cursar, juntamente con la natural” (apud Mitxelena Mz. de Ilarduya 1977, 64).

Sumulas izenekoak Domingo de Sotorenak baziren ere¹⁵, beste arlo guztietan Aristotelek zeraman protagonismoa: dialektika lantzeko haren *Organon*-a zen oinarrizko testua, Filosofia Naturalerako haren *Fisika* liburuak¹⁶, eta Filosofia Moralean batik bat *Ethica ad Nicomachum* eta *Politica* liburuak.

Iraupenari dagokionez, bistan da hiru urteko ikastaldia ohi zela ikasleek burutu behar izaten zutena eskierki. Guztiarekin, badirudi hirugarren kurtsoaren bukaeran (hiru urte naturalak bete baino lehenago, beraz) Ordena erlijiosoetako partaideei Teologia ikasteko baimena ematen zitzaiea.

Honek guztiak, Axularren ikasketa-prozesua Salamancan burutua eta kronologikoki arrunta izan balitz, 1587. edo 1588. urtea izan zitezkeen ikasketa-hasierako urteak. Zitezkeen aukeren artean geratzen da, beraz, Itziar Mitxelenak aurkeztutako hipotesia, hots, “pentsa dezakegu, bada, 1587-88tatik 1591eraino Axular artista egiten ari zaigula” (1977, 58), Urdazubiko monasterioan ikasle gisa azaltzen denean hain zuzen: 1588an “estudiante al presente estante en el dicho monasterio” (ikus Aguirre Gaztambide 1980, 407) eta 1591n “estudiante residente en la granja de dicho monasterio” (*Idem*, 408).

¹⁵ Ikus, esaterako, haren *Summularum*, Portonariis, Salmanticae, 1571.

¹⁶ *Libri Physicorum* (8 libururu), *De generatione et corruptione* (2 lib.), *Meteorologica* (4 lib.), *De anima* (3 lib.), *Metafisica* (14 lib.) etab.

Ondoko urteetako ibilbide akademikoa zirriborrazteko orduan ezin da ahaztu gure autorearen izena ez dela Salamancako matrikula liburuetan azaltzen¹⁷. Baina, edonola ere, liburu horietan azaltzen diren informazio desberdinetan bilatu nahi izan da maiztxo Axularrek teologia ikasketetarako ezinbestekoa bide zuen arte-batxilergoa non burutu zuen jakin ahal izateko aztarnarik. Hain zuzen ere, 1592ko azaroaren 14ean, hau da, Axular matrikulatu baino sei egun lehenago Izkoko Joanes izeneko nafarra¹⁸ lehen kurtsoan matrikulatu zen; izenaren ondoan batxilergoa Huescan egin zuela adierazten da (AUSA 307, 91 i.)¹⁹. Frogatu beharreko hipotesia bada ere, ez dago zalantzarik Huescak hurbiltasun geografikoa eskaintzen ziela nafarrei²⁰.

Gure hipotesien arabera, alabaina, 1588tik²¹ aurrera Axular Salamancan izango zen ia etenik gabe, besteak beste Arteetako

¹⁷ Guk ere ez dugu Axularren izena 1587-88ko (AUSA 305) eta 1588-89ko (AUSA 306) matrikulen artean aurkitu (AUSA: Salamancako Unibertsitateko Artxiboa adierazteko laburdura).

¹⁸ Bitxikerrien libururako utzi beharko da pertsonaia honen nortasun zalantza. 1592-93 ikasturteko matrikulazio liburuan honako ohar hau tartekatzen da 1593ko urtarrilaren 22an: "Esta matr(icula)do Joannes de izco n(atura)l de izco y [...] tiene presentada la carta de bachiller parecio ser natural de ciligueta de la dioc(esis) de Pamplona y el curso que alli tiene probado dice ser del mismo pueblo, y aora de nuevo se buelbe a matricular y se llama joannes de ciligueta n(atura)l de ciligueta de la dioc(esis) de Pamplona" (AUSA 307, 100 i.).

¹⁹ Izkoko Joanes de Yzco bezala agertzen denak 1592ko azaroaren 14an egin zuen matrikula 92-93 ikasturtean Teologiako lehen kurtsoa egiteko. Matrikula-liburuan oso garbi adierazten da "b(achiller) ar(tista) por Huesca" (AUSA 307, 91b) zela, hau da, ez zuela Salamancako Unibertsitatean bestelako frogarik burutu behar.

²⁰ Bertako Unibertsitatean, esaterako, Fray Pedro Malón de Echaide nafar ospetsua ibili zen Teologian Lizentziatura eta Doktoretza eskuratu arte; gero Eskrituretako irakasle gisa aritu zen zenbait urtez (1580-1583) (ik. San Juan Urmeneta 1957).

²¹ 1588ko azaroaren 24ra arte Urdazubin aurkitzen dugu "estudiante estante" bezala (ik. Aguirre Gaztambide 1980). Zitekeena zen Axular 1587tik 1588ko

batxilergoan ikasi ohi zena ikasten. Dena den, ezaguna da Unibertsitateak fraideei, Ordena barnean azterketa pribatu baten bidez lortutako graduak onartzen zizkiela.

Eta honetan bada urdazubiarraren biografietan agertzen ez den datu interesgarriarik. Izan ere, Felipe II.ak debekatua zuen Frantziara ikastera joatea (gogoratu han zeukatela premontretarrek jatorrizko etxea eta azpiegitura garrantzitsuena). Era berean, norbertarrek atzerriko unibertsitateetan zituzten haien kolegio edo ikastetxeak, baina heresiak zirela eta, Salamancan unibertsitate-ikastetxe bat eraikitzea erabaki zuten. Kolegio hori 1569ko ekainaren 6an onetsi zuen ofizialki unibertsitateak eta handik aurrera hara joan ziren ikastera "los estudiantes más escogidos de la orden" (Goñi Gaztambide 1960, 16). Bestalde, ohiko baimenez gain, ikastetxe hartako ikasle bihurtzeko ezinbesteko zuten gutxienez hiru urte beteak izatea profesa egin zuten unetik.

Pentsatzekoa da Axularrek ere Salamancako ikastetxe premontretar hura izango zuela egoitza eta ikasleku urte haietan, baldintza guztiak betetzen baitzituen hartarako.

Hartan aritzeagatik berezko konbalidazioa izango zuen arren, gogoratzekoa da datu adierazgarri gisara, 1591n Salamancako Unibertsitatean "Arteetan" emandako batxilergo tituluen arabera (AUSA 741), ikasleen maila baloratzeko egokitu zitzaizkien "epaileak" sona handiko irakasleak zirela. Bizpahiru kasu baino ez aipatzearren, honako hauek ekarri nahi ditugu hona: Mendaroko Andres Etxaberi, Jokanoko Pedro Ortiz-i eta Iruñeako Pedro de Alcoz izenekoari Fco.

amaiera bitartean nobiziatua betetzen egon izana. Hainbat Ordenatan (karmeldarrak barne) garbi arautua zegoen nobizioek ezin zituztela ikasketak Ordenaren lege-ohituretan, liturgian, ofizioetan eta koruko zeremonietan parte hartzeko eragozpen izan, komunitatearen bizimoduan eta egikizunetan egiten zuten lehen murgilketa sakona baitzen (ik. Silverio de Santa Teresa 1936, 26-27)

Zumel (“catedrático de Filosofía Moral”) egokitu zitzaien epaile nagusi gisa. Bestalde, Labaiengo Fernando Labayen eta haren anaiaren epailea Juan Alonso Curiel (“catedrático de Biblia”) izan zen. Eta hirugarrenik, Gasteizko Pedro Ochoa de Ali eta Barasoaingo Martin Sanz ikasleei Fco. Sanchez “Brocense” (“catedrático de Rectorica, jubilado”) ospetsuak²² eman zien batxilergoa.

[Jarraitzeko]

4.- PRESTAKUNTZA EKLESIASTIKOA (1591-1595)

4.1.- Prestakuntza teologiko-morala

4.2.- Salamanca: kulturgune eta argitaltoki

4.3.- Salamanca, euskalkien biltoki

5. - ORATORIA SAKRATUAREN BIDEETAN

BIBLIOGRAFIA

Patxi Salaberri Muñoa

²² Brozasekoaren eragina -eta haren liburuen irakurketa nonbait- ziurtaturik geratzen zen Salamancako unibertsitatean sartzera zihoazenen artean.